

EUSKADIKO
EROSKETA ETA
KONTRATAZIO
BERDEAREN
2030ERAKO
PROGRAMA

2023KO JARRAIPEN TXOSTENA



Txosten honetan Ihobek, Ingurumeneko Euskal Agentziak, EAEko 2030eko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren idazkaritza tekniko gisa egindako jarduerak eta 2023an euskal sektore publikoak egindako lizitazioetan txertatutako ingurumen klausulen ezarpen maila azaltzen ditu.

2023KO JARRAIPEN TXOSTENA



©Ihobe, 2025ko Urtarrila


Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua
48011 Bilbo

www.ihobe.eus
[@ihobe_Eus](https://twitter.com/ihobe_Eus)



AURKIBIDEA

1.

Jarraipen txostenaren helburua eta metodologia

[pág. 6]

2.

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa

[pág. 7]

3.

Programa gauzatzea: ekintzetan aurrera egitea eta aurrekontua

[pág. 10]

4.

Programaren inpaktua: emaitzaren adierazleak

[pág. 22]

5.

Ondorioak

[pág. 24]

6.

Eranskinak

[pág. 26]

1. JARRAIPEN TXOSTENAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programaren Jarraipen Txostenaren helburua da Programaren aurrerapena zehaztea eta 2030erako ezarritako helburuak lortzeko neurriak eta ekintzak iradokitzea.

Eremu (A) bakoitzaren eta jarduera ildo (LA) bakoitzaren aurrerapen maila **analisi multidimentsional** baten bidez neurtzen da, honako hauen arabera.

- **Ekintzak gauzatzea** jarduera ildo bakoitzean. Haztapen ehuneko hauek erabili dira:

Ekintzaren egoera	Aurrerapen-mailako ekintza-leerroaren ponderazioa
Hasi gabe	% 0
Hasita	% 25
Aurreratuta	% 50
Oso aurreratuta	% 75
Amaituta	% 100
Baztertuta	Ez da haztatu

- Aurrekontuaren **gauzatze finantzarioa**.
- **Adierazle estrategikoen** bidez lortutako **emaitzak**. Balorazioa ehuneko hauek erabili dira:

Betetze mailaren balorazioa	
	Eskuragarri dagoen azken urteko balioak ez badu helburu gisa ezarritako balioaren % 75 gainditzen
	Eskuragarri dagoen azken urteko balioak helburu gisa ezarritako balioaren % 75 gainditzen badu, baina ez da balio horren % 90era iristen ez bada
	Eskuragarri dagoen azken urteko balioa balio objektiboaren % 90era iristen bada edo balio hori baino handiago bada

2. EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN 2030ERAKO PROGRAMA

BISIO ESTRATEGIKOA

BISIOA

Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa ahalmena bikain eta merkatuarekin koordinatuta erabiltzea garapen sozioekonomikoa jasangarria izan dadin eta,aldi berean, Euskadiko ingurumenaren babes, enpresa lehiakortasuna ea pertsonen ongizatea ahalik eta handiena izan daitezen.

PRINTZIPIOAK


- Koherentzia.
- Gardentasuna
- Erantzunkidetasuna.
- lankidetzeta.
- Eraginkortasuna eta berrikuntza.
- Sentsibilizazioa eta profesionalizazioa.

HELBURUAK

- Erosketa berdea marko juridiko sendo batean ainguratzea eta ingurumenaren eta ekonomiaren arloetako politika eta helburuen babes ziurtatzea.
- Erosketa publiko berdea finkatzea euskal sektore publiko osoan
- Euskal sektore pribatuan ere erosketa berdea inplementatzea.
- Merkatu berdea garatzea kalitatezko euskal eskaintza lehiakor eta prestatua eginenez.
- Inpaktuen eta onuren jarraipen eta bistratze sistemak hobetzea.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

	2025EKO HELBURUAK	2023O EKO HELBURUAK
Programari atxikitako entitate publikoen kopurua	75	150
Programari atxikitako entitate pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	20	50
Garapen Jasangarriko Helburua: 12.7.1 adierazlea, ingurumen irizpideekin kontratatzeari buruzkoa (4.6tik) ¹	4.0	4.2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa Programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazio osoan)	% 55 (% 40)	75% (% 60)

PROGRAMAREN LEHENTASUNEZKO KATEGORIAK**Jarduera eremuak eta ildoak¹****A1. Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa**

LA1. Erosketa berdeak euskal sektore publiko osoaren esparru politiko eta juridikoan tresna operatibo gisa duen zeregina indartzea.

LA2. Erosketa berdea Euskadiko ingurumen eta ekonomia lehenetsunekin lehenetsiz delatzen ziurtatzea.

A2. Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea

LA3. Euskal sektore publiko osoaren parte hartzea lortzea.

LA4. Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mobilizatzea

A3. Erosketa eta kontratazio berdea egitura eta berrikuntza elementu bihurtzea erakundeetan

LA5. Baliabideak ematea inplementazio sistematiko eta estrategiko baterako.

LA6. Erosketa eta kontratazio funtzioa profesionalizatzea inplikaturako langile guztiengan.

A4. Merkatu egokia, kalitatekoa eta prestatua izatea.

LA7. Merkatuarekin elkarriketa eta lankidetzaren sustatzea, irtenbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.

LA8. Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen eskaerei aurre egiteko.

A5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea

LA9. Inplementazioa neurtzea eta ingurumen aldetik jasangarria den erosketa eta kontratazioaren onurak zenbatestea.

LA10. Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak jakinarazi eta sustatzea, Euskadin, Europan eta nazioartean.

¹NBEk egindako "CPS indizea kalkulatzeko metodologian" oinarrituta kalkulatua, 2022ko uztaila

¹Jarduera Ildoak 21 ekintzatan banatzen dira.

3. PROGRAMA GAUZATZEA: EKINTZETAN AURRERA EGITEA ETA AURREKONTUA

LA 1. Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 2
- Ekintza 1 amaituta
- Ekintza 1 aurreratuta


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **19.900 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **5.843 €**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

EAEko administrazioarako eta sektore publikorako ingurumen klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea argitaratzea.


Erosketa eta kontratazio berdeko betebeharrak sartzeari buruzko euskal administrazio publikoentzat Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legean.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Jarraibidea Eusko Jaurlaritzako sailetan txertatzeko lanean jarraitzea.

Jarraibidea gainerako euskal erakunde publikoei helaraztea.

Euskal administrazio publikoak informatzea eta sensibilizatzea Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen ondoriozko betebeharrari buruz.



LA2. Erosketa berdea Euskadiko ingurumen eta ekonomia lehentasunekin lerrotzekin dela ziurtatzea.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 2
- Ekintza 1 Hasita
- Ekintza 1 Hasi gabe


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **143.750 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **21.418 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Ingurumen irizpideak definitzea beste bi kategoria garrantzitsu batzuetarako: argiteria publikoa eta obra hidraulikoa.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Jarraibideko irizpideen betetze maila aztertzea.

Inbertsioa handitzea ingurumen irizpideen eguneratzea arintzeko, eta produktu/zerbitzu kategoriak handitzea, ezarritako irizpideekin.

LA3. Euskal sektore publiko osoaren parte hartzea lortzea.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 2
- Ekintza 2 amaituta


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **80.950 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **28.540 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Erosketa eta kontratazio publiko berdeko lantaldea sustatzea toki erakundeentzat, Udalsarea 2030en bidez

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Toki erakundeen taldea finkatzea eta koordinatzea, euskal sektore publikoaren parte hartzea handitzeko.

LA4. Euskal enpresak sensibilizatzea eta mobilizatzea.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 1
- Ekintza 1 Hasita


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **238.500 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **47.556 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Sektore pribatuan erosketa berdea aplikatzeko gida egiten hasia.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Karbono aztarnaren kalkuluaren erabilera bultzatzea, euskal enpresetan erosketa berdeko irizpideak sartzeko bitarteko gisa.

LA5. Baliabideak ematea implementazio sistematiko eta estrategiko baterako.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 3
- Ekintza 1 aurreratuta
- Ekintza 1 Hasita
- Ekintza 1 Hasi gabe


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **232.300 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **47.556 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Material berriztagarriak kontuan hartzen dituzten lanetan bigarren mailako materialak kalkulatzeko tresnaren bertsio berria argitaratzea.


Erosketa berdeari edo pleguetan txertatutako ingurumen irizpideei buruzko kontsultei erantzuteko zerbitzua ematea (47 eskaerari erantzun zaie).

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Tresna berrien implementazioan aurrera egitea.

Jardunbide egokien dokumentuak eta gida metodologikoak egitea.

Erosketa Berdearen 2030erako Programari atxikitako erakundeentzako kontsulta zerbitzua hobetzea.



LA6. Erosketa eta kontratazio funtzioa profesionalizatzea inplikaturako langile guztiengan.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 2
- Ekintza 1 aurreratuta
- Ekintza 1 Hasi gabe


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **154.950 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **27.255 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA




EMAITZAK

"Kontratazio publikoan ingurumen irizpideak sartzean egin ohi diren akatsei" buruz egindako jardunaldi teknikoa. Administrazio publikoetako teknikariak erosketa berdearen arloan trebatzea zen helburua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuako beste autonomia erkidego batzuetako 90 pertsona inguruk hartu zuten parte.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Administrazio publikoetan autoprestakuntzako materialak eta estrategiak egiteko inbertsioa handitzea.

Administrazio publiko garrantzitsuei, hala nola Osakidetzari, Ertzaintzari eta beste batzuei prestakuntza eta gaikuntza espezifikoak ematea.



LA7. Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetzara sustatzea, irtenbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 2
- Ekintza 1 Hasita
- Ekintza 1 Hasi gabe


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **159.000 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **31.704 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Euskal Herriko birgaikuntza eta eraikuntza jasangarriko erosketa publikoak egiteko gidei buruz egindako kontraste eta gogoeta saioa, non eraikuntzaren balio kateko enpresek eta erakundeek parte hartu baitzuten.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Euskal enpresa pribatuen parte hartzea handitzea, irizpideak eguneratzeko eta kategoria berriak sortzeko prozesuetan.

LA8. Enpresa hornitzaileak prestatzea, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen eskaerei aurre egiteko.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: 1
- Ekintza 1 Hasita
- Ekintza 1 Hasi gabe


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **254.250 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **34.868 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Sektore pribatuan erosketa berdea aplikatzeko gida egiten hastea.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Sektore pribaturako prestakuntza/informazio ekintzak egitea, euskal enpresa pribatuak Euskadiko EKBko Programara atxikitzea lortzeko.

LA9. Implementazioa neurtzea eta ingurumen aldetik jasagarria den erosketa eta kontratazioaren onurak zenbatzea.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: **2**
- Ekintza 1 oso aurreratuta
- Ekintza 1 Hasi gabe


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **191.000 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **44.392 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Erosketa berdea aplikatzearen onurak neurtzeko tresna bat garatzea.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK

Garatutako tresna berrikustea eta abian jartzea, eta Europako beste tresna batzuk aztertzea, EKBren onurak neurtzeko eta Euskadin aplikatu ote daitekeen baloratzeko.



LA10. Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak jakinarazi eta sustatzea, Euskadin, Europan eta nazioartean.


EKINTZAK GAUZATZEA

- Ekintzen kopuru osoa: **3**
- Ekintza 2 Hasita
- Ekintza 1 aurreratuta


GAUZATZE FINANTZARIOA

- 2021-2030 aldiko aurrekontua: **115.400 €.**
- 2021-2023 aldian gauzatua: **27.907 €.**

AURRERAPEN MAILA



AURRERAPEN MAILA



EMAITZAK

Joeren hainbat txosten argitaratzea.

ICLEIren webinar batean (PROCURA+) parte hartzea; Erosketa publiko jasagarriaren esparruan esperientziak trukatzeko Europako sarea.

Obretako ingurumen irizpideak zabaltzea, Euskadin egindako lan foro baten bidez, 2030 Erosketa Berdearen Programari atxikitako 15 erakunderekin.

ETORKIZUNeko LEHENTASUNAK


Jardunbide onak eta EKBko irizpideak dituzten baldintza orriak argitaratzea.

Nazio Batuen eta ICLEIren erosketa berdeko programetan eta nazioko edo nazioarteko kongresuetan ere parte hartzea handitzea.


Urtean foro bat edo jarduera baliokide bat egitea, administrazio publikoek erosketa eta kontratazio berdean duten konpromisoa aitortzeko.

Ekintzen gauzatzearen jarraipena	
Hasi gabe	5
Hasita	7
Aurreratuta	5
Oso aurreratuta	1
Amaituta	3
Baztertuta	0
GUZTIRA	21

Ekintzen gauzatze egoera



WEKIINTZEN GAUZATZE OSOAREN AURRERAPEN MAILA 2030EAN



Erosketa eta Kontratazio Berdeko (EKB) Programako ekintza gehienak hasi dira. Horietako batzuk aurreratuta daude, edo oso aurreratuta, edo amaituta.


Ekintzak gauzatzean izandako aurrerapen maila osoa % 38koa da.

Ekintzak gauzatzen izandako aurrerapen maila, jarduera eremuka eta ildoka




Urtea	Planaren aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Aurrekontuaren betetze maila
2021	200.000 €	133.652 €	% 67
2022	175.000 €	120.111€	% 69
2023	175.000 €	63.276 €	% 36
Guztira 2021-2023	550.000 €	317.039 €	% 58
Guztira, 2021-2030	1.590.000 €	317.039 €	% 20

GAUZATZE FINANTZARIOAREN AURRERAPEN MAILA 2030EAN




2023ra arte, Programaren aurrekontu osoaren 2030eko gauzatze finantzarioaren aurrerapen maila % 20koa izan da.

Gauzatze finantzarioan izandako aurrerapen maila, jarduera eremuka eta ildoka



4. PROGRAMAREN INPAKTUA: EMAITZAREN ADIERAZLEAK

	BALIOA 2023	Helburua 2025	BETETZE MAILA
Programari atxikitako erakunde kopurua			
Erakunde publikoen kopurua	37	75	% 49
Erakunde pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	0	20	% 0
Garapen jasangarriko helburua: 12.7.1 adierazlea*			
Ingurumen irizpideekin kontratatzeari buruzko balioa 4.6tik ¹	4,1	4,0	% >100
Erosketa publiko berdearen ehunekoa Programan lehenetsitako kategorietan			
Lizitazio kopuruaren ehunekoa	% 54	% 55	% 98
Bolumen ekonomikoaren ehunekoa	% 73	% 55	% >100
Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan			
Lizitazio kopuruaren ehunekoa	% 42	% 40	% >100
Bolumen ekonomikoaren ehunekoa	% 61	% 40	% >100



¹ NBEk egindako "CPS indizea kalkulatzeko metodologian" oinarrituta kalkulatua, 2022ko uztaila

5. ONDORIOAK

EKINTZAK GAUZATZEA

- **Ondorio nagusiak**

Programako ekintzak gauzatzean izandako **aurrerapen maila orokorra egokia** da 2030erako helburuak betetzeko.

Erosketa berdearen esparru politiko eta juridikoa nabarmen indartu da. Nabarmenezkoa da administrazio orokorraren, instituzionalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen **erosketan eta kontratazioan ingurumen-klausulak sartzeari buruzko jarraibidea** argitaratu izana.

Erosketa berdea erakundeetan egiturazko eta berrikuntzako elementu izan dadin lortzeko eta **erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusarazteko** ekintzak gauzatzean izandako aurrerapen maila txikiagoa izan da.

- **Datozen urteetarako lehentasunak**

Euskal administrazio publikoen autoprestakuntza sustatzeko eta errazteko materialak eta estrategiak garatzea.

Sektore pribaturako informazioko eta prestakuntzako ekintzak egitea eta irizpideak eguneratzeko prozesuetan inplikatzera.

Erosketa eta kontratazio berdean **Euskadin egindako lana bistaratzeko eta aitortzeko** ekintzak egitea (albisteen, jardunbide egokien, aintzatespen ekitaldien, nazioko edo nazioarteko parte hartzearen eta abarren bidez).



PROGRAMAREN AURREKONTUA

- **Ondorio nagusiak**

Ekintzak gauzatzean aurrerapen maila egokia lortu da, **aurrekontu gauzatze txikiarekin**.

Baliabideak, bereziki, **Erosketa eta Kontratazio Berdea sistematikoki eta estrategikoki implementatzeko ekintzak garatzen, programaren onurak kalkulatzeko eta euskal enpresak sentsibilizatzen eta mobilizatzen erabili dira**.

Emaitza esanguratsuak lortu dira lehen bi jarduera ildoetan, **euskal enpresa pribatuak Programari atxikitzean** izan ezik.

- **Datozen urteetarako lehentasunak**

Baliabideak berrikustea eta aurrerapen mailarik txikiena eta inpaktu emaitzarik txikiena lortu duten jarduera ildoetara **bideratzea**.

Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen inplikazio ekonomikoa lortzea, erosketa eta kontratazio berdea bultzatzeko.

Erosketa berdearen esparru politiko eta juridikoaren garapenean aurrera egiteko **baliabide tekniko gehiago ematea**, erosketa eta kontratazio berdea egungo euskal merkatuarekin lan egingo duen **egiturazko eta berrikuntzako elementu** bihurtzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Ondorio nagusiak**

Euskal sektore publikoko erakundeen atxikipenean modu egokian egiten ari da aurrera, **baina ez da lortu sektore pribatua traxionatzea**.

Erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen irizpideen txertatze maila handia da, eta 2025erako ezarritako ia helburu guztiak gainditu dira. **Energia elektrikoa eta ibilgailu arinak, elikadura eta ehunak** izan dira ingurumen irizpideak gehien txertatu dituzten **erosketa kategoriak**. Aldiz, **inprimaketa ekipoak eta ekipo informatikoak** izan dira ingurumen irizpideak gutxien txertatu dituzten kategoriak.

Ingurumen klausula gehienak kontratuak gauzatzeko baldintza berezietan txertatu dira.

Gainera, **gainditu da Garapen Jasangarriko Helburuaren 12.7.1 adierazlerako** (erosketa publikoen arloko politika eta ekintza plan jasangarrien aplikazio mailari buruzko adierazlea) **ezarritako helburua**.

- **Datozen urteetarako lehentasunak**

Euskadiko **Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako programa berrira atxikitako erakunde kopurua areagotzea**, batez ere enpresa pribatuena. Horretarako, garrantzitsua da komunikazio eta kontzientziario lan aktiboa egitea erakundeetan interesa sortzeko eta erosketa berdea haientzat tresna estrategikoa dela konbentzitzeko.

Ingurumen irizpideak gutxien txertatuta dituzten kategorietan eta erakundeetan lantzea, prestakuntza espezifiko eta monografikoen bidez, besteak beste.

Atxikitako erakundeak bultzatzea (tailer, jardunaldi tekniko edo prestakuntza bideoen bidez) **gauzatze baldintza berezietan bestelako ataletan ingurumen klausulak sartzera**.

6. ERANSKINAK: EMAITZA ADIERAZLEEN XEHETASUNA

PROGRAMARI ATXIKITAKO ERAKUNDE KOPURUA

Ekitaldi honetan, beste 2 erakunde publikok bat egin dute Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako Programarekin, eta, horiekin, programari **guztira 37 erakunde atxikitzea** lortu da 2023an. Izan ere, aurtengo 2025erako lortu beharreko atxikitako erakunde kopuruaren ia erdia lortu da. Aldiz, **enpresa pribatu batek** ere ez du bat egin programarekin.

BETETZE MAILA:
ERAKUNDE PUBLIKOAK

% 49

BETETZE MAILA:
ERAKUNDE PRIVATUAK

% 0

Euskal administrazioetako erosketa publiko berdearen ehunekoari dagokionez, 2023an **oso maila altuak lortu** dira ingurumen irizpideen txertaketan, bai lehentasunezko kategorietan, bai erosketa globalean. **2025erako ezarritako ia helburu guztiak lortu eta gainditu dira**

EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN EHUNEKOA PROGRAMAN LEHENETSITAKO KATEGORIETAN

BETETZE MAILA:
LIZITAZIO KOP

% 98

BETETZE MAILA:
BOLUMEN EKONOMIKOA


% >100

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUA: 12.7.1 ADIERAZLEA

Garapen Jasangarriko Helburuaren 12.7.1 adierazleak, Erosketa publikoen arloko politika eta ekintza plan jasangarrien 2023rako aplikazio mailari buruzkoak, **lortutako balioa (4,6 puntutik) 4,1¹ izan da**. Balio horrek 2025erako helburu gisa ezarritako 4,0ko balioa gainditu du dagoeneko.

BETETZE MAILA


% >100




¹ NBEk egindako "CPS indizea kalkulatzeko metodologian" oinarrituta kalkulatua, 2022ko uztaila

EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN EHUNEKOA KONTRATAZIO OSOAN

BETETZE MAILA:
LIZITAZIO KOP.




BETETZE MAILA:
BOLUMEN EKONOMIKOA



2023ko ekitaldirako Euskadiko kontratazio plataformatik ateratako datuen arabera, erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan % 42koa izan da lizitazio kopuruan eta % 61koa bolumen ekonomikoan

	Lizitazioak GUZTIRA	Ingurumen Irizpideekin	Erosketa berdearen maila (%)
Lizitazio kopurua	7.457	3.172	% 42
Zenbateko ekonomikoa (€)	3.589.241.406	2.173.756.891	% 61


PRODUKTU MULTZOA	Erosketa berdearen % (Lizitazio kop)	Erosketa berdearen % (zenbatekoa, €)
Elikadura	% 57,7	% 90,8
Argiteria publikoa	% 46,8	% 58,5
Eraikuntza eta hirigintza	% 53,1	% 65,5
Energia elektrikoa	% 50,0	% 98,7
Inprimaketa ekipoak	% 18,0	% 2,2
Ekipo informatikoak	% 39,3	% 18,1
Lorezaintza/ berdeguneak	% 59,2	% 75,0
Altzariak	% 44,4	% 66,0
Obra zibila eta azpiegiturak	% 60,5	% 80,0
Ehunak	% 82,2	% 55,3
Ibilgailu arinak	% 74,3	% 94,8
Ibilgailu astunak	% 57,1	% 35,5



Energia elektrikoa eta ibilgailu arinak, elikadura eta ehunak izan dira ingurumen irizpideak gehien txertatu dituzten **erosketa kategoriak**.

Aldiz, **inprimaketa ekipoak eta ekipo informatikoak** izan dira ingurumen irizpideak gutxien txertatu dituzten kategoriak.

ERAKUNDE MOTA	Erosketa berdearen % (Lizitazio kop)	Erosketa berdearen % (zenbatekoa, €)
Udala	% 51,3	% 59,6
Koadrilla	% 38,5	% 39,6
Foru Aldundia	% 60,6	% 82,0
Eusko Jaurlaritza	% 49,1	% 87,3
Biltzar Orokorrak (Forala)	% 89,5	% 97,1
Mankomunitatea	% 52,1	% 70,9
Beste bat – Udal eremua	% 41,1	% 27,5
Beste bat – Probintzia eremua	% 52,0	% 57,5
Beste bat – eskualde eremua	% 57,6	% 44,9
Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa	% 23,9	% 43,6
Foru sektore publikoa	% 46,9	% 70,3
Udal sektore publikoa	% 36,9	% 52,7



Biltzar Nagusiak, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak izan dira euren baldintza orrietan ingurumen irizpideak sartzeagatik nabarmentzen diren erakundeak.

Baldintzen orriko zer lekutan aplikatu diren	Ehunekoa
Gauzatzeko baldintza bereziak	% 77,7
Esleipen irizpideak	% 15,8
Kaudimen teknikoko irizpideak	% 2,0
Beste batzuk	% 4,3

Ingurumen klausula guztien % **77,7** gauzatze baldintza berezietan txertatu dira, eta % **15,8** esleipen irizpideetan.

	Ingurumen irizpideekin egindako lizitazioak		Lizitazioak guztira	
	Lizitazio kop.	Zenbatekoa (€)	Lizitazio kop.	Zenbatekoa (€)
Euskal enpresen ehunekoa	% 72,5	% 68,2	% 63,5	% 58,6

Euskal enpresei esleitu zaizkie ingurumen irizpideekin egin diren lizitazio publikoen % **72,5**, eta hori da ingurumen irizpideekin egin diren lizitazio publikoen bolumen ekonomikoaren % 68,2.

JARRAIPIENKO BESTE ADIERAZLE BATZUK

Adierazlea	Helburuko balioa	2021	2022	2023
Ekintza Planetako ekintzen gauzatze maila	% 100	% 7	% 25	% 38
Mobilizazio/dinamizazio ekintzen kopurua	3 urtean	3	3	4
Prestakuntza ekintzen/baliabideen kopurua	4 urtean	5	4	4
Ikusarazteko ekintzen kopurua	4 urtean	4	5	2

Mobilizazioko eta prestakuntzako ekintzen kopuruari buruzko helburuak bete dira. Aldiz, ez da lortu ikusarazteko aurreikusitako 4 ekintza



